

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure merkatua, bereziki, bezero oso zehatzei eta berezinuei zuzenduta dago. Gure proposamena talde zehatz honi egokituta egon behar du. Haurraren eta amaren/aitaren beharrei buruzko era guztietako informazioa ematen du, horregatik, guraso izan nahi dutenentzako eta guraso direnentzako izango da bereziki.

Alde batetik, haurdun dauden pertsonentzat bideratuta dago eta bertan bi multzo sailkatu ditzazkegu:

- 0-4 HILABETE: Hemen barruan, elikadura eta osasunaren inguruko hainbat puntu ezberdin eskaintzen ditugu (adibidez, amak dieta orekatu bat eraman dadin, gomendio batzuk).
- 5-9 HILABETE: Multzo honetan, baita ere, elikadura eta osasunaren inguruko gomendioak ematen ditugu, baina, 5-9 hilabeteera egokituta. Honekin batera, erditze momenturako prestaketak jasotzeko, hainbat profesionalen laguntza egongo da.



Beste aldetik, haurra jaiotzen den momentutik aurrera, hau da, 0-6 urte bitarteko garapenaren inguruko informazioa. Puntu honetatik aurrera aurkituko den informazioa, bereziki, haurrentzat zuzenduta dago. Bi multzotan banatu dugu:

- 0-3 URTE: Elikadura, higieena eta loa puntu nagusizat hartu ditugu. Haurrari bere behar nagusiak asetzeko hainbat gomendio eskaintzen ditugu (adibidez, zenbat ordu lo egin behar duen, haurra osasuntsu egon dadin zer elikagai-mota komenigarriak diren...)
- 4-6 URTE: Hemen baita ere, higienari, elikadurari eta loari buruzko informazioa jarri dugu, baina honen barruan, gomendioak egokituta egongo dira 4-6 urte bitarteko umeentzat.

Familia bat sortu nahi duten pertsoneri zuzenduta egon arren, aplikazio honetan mota guztietako pertsonak sartzeko aukera ere izango dute, informazioa eskuratzeko.

